

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 1927/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA  
KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 20koa, globalizaziora egokitzeko Europako funtsa sortzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : « *Reglamento (CE) n° 1927/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de diciembre de 2006, por el que se crea el Fondo Europeo de Adaptación a la Globalización. (Diario Oficial de la Unión Europea, L 406/1 de 30/12/2006)* »

2006/1927 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 406/1, 2006/12/30ekoa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*(Actos cuya publicación es una condición para su aplicabilidad)*

**1927/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 20koa, Globalizaziora Egokitzeko Europako funtsa sortzen duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatua eta, bereziki, haren 159. artikuluko hirugarren lerrokada aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Eskualdeen Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>

Eta 251. artikulua <sup>(2)</sup> arautzen duen prozedurari jarraituz,

Honako hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Globalizazioak hazkundera, enplegua eta oparotasuna dakarzkigu, eta efektu onuragarri horiek bultzatzeko, komeni da, egiturazko erreformen bidez, Europaren lehiakortasuna indartzen jarraitzea; hala ere, globalizazioak ondorio txarrak ere eragin ditzake, gehienbat sektore jakin batzuetako langile ahulentzat eta prestakuntza gutxien dutenentzat. Horregatik, komeni da Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa sortzea (aurrerantzean, GEEF). Funtsa estatu kide guztien eskura jarriko da, eta, hari esker, Erkidegoak aukera izango du bere elkartasuna munduko merkataritzaren eredu-aldaketen ondorioz kaleratuak izan diren langileei bideratzeko.

(2) Europako balioak babestu behar dira eta bidezko kanpo-merkataritza sustatu. Globalizazioaren ondorio kaltegarriei aurre egiteko, lehenik eta behin, merkataritza-politikarako Erkidegoko estrategia bat prestatu behar da, eta estrategia horrek, epe luzerakoa eta iraunkorra izateaz gain, bide eman behar du goi-mailako arau sozial eta ekologiko unibertsalak sortzeko. Funtsaren laguntzak izaera dinamikoa izan behar du, eta merkatu-egoera aldakorretara egokitzeko aukera eman behar du, haiek, sarri, iragarri ezinak baitira.

(3) GEEFaren laguntzek jakinak eta zehatzak izan behar dute, eta haien xedea, berriz, ekonomiaren asaldura larriek kaltetutako eskualde, sektore, lurralde eta esparruetako langileak berriz laneratzea. GEEFak enpresa-jarduera sustatu behar du, besteak beste, mikrokreditu edo elkarlan-proiektuen bitartez.

(4) Komeni da ekintzak Erregelamendu honen babespean zehaztea, esku hartzeko irizpide zorrotzen arabera eta, betiere, ekonomia-arazoen sektore edo eskualde geografiko batean duen eraginaren garrantzia kontuan hartuta. Ekintzen helburua GEEFaren finantza-laguntza langile behartuenei ematea da, hau da, ekonomiaren asaldura larriek gehien eragin dituzten Erkidegoko eskualdeetako eta sektore ekonomikoetako langileei. Ekonomiaren asaldura horrek ez dio zertan estatu kide bakar bati eragin behar. Kasu horietan, estatu kideek batera eskatu ahal izango diote finantza-laguntza GEEFari.

(5) GEEFaren jarduerak koherenteak eta bateragarriak izan behar dute Erkidegoko gainerako politikekin, eta bat egin behar dute ondare horrekin.

---

<sup>1</sup> 2006ko irailaren 13an aurkeztutako irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

<sup>1</sup> 2006ko urriaren 11n aurkeztutako irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

<sup>2</sup> 2006ko abenduaren 13ko Europako Parlamentuaren Jarrera (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta 2006ko abenduaren 19ko Kontseiluaren Erabakia.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(6) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an izenpetutako erakunde-arteko Hitzarmena, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoa<sup>(1)</sup>, loteslea izango da 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta haren 28. paragrafoak GEEFaren aurrekontu-esparrua zehazten du.

(7) Erregelamendu honek berariaz finantzatutako operazioek ezin dute jaso Erkidegoko beste finantza-tresna batzuen finantza-laguntzarik. Hala ere, eskualde-garapenaren baitan indarrean dauden edo izan daitezkeen modernizazioko eta berregituratzeko neurriekiko koordinazioa beharrezkoa da; horrela jokatzuz gero, ez baita sortuko GEEFaren kontura finantzatutako jarduerak kudeatzeko egitura paralelorik edo osagarririk.

(8) Erregelamendu honen aplikazioa erraztearren, komeni da globalizazioak kaltetutako langileei zerbitzu pertsonalizuak eskaintzen hasi ondoren onartzea estatu kideen gastuak. Pertsona horiek laneratzeko berariazko ekimen bat abiatzeko premia dagoela ikusita, denbora-epe jakin bat zehaztuko da, GEEFaren finantza-laguntza erabiltzeko.

(9) Estatu kideek arduratu behar dute, orain arte egin duten moduan, finantza-laguntzak erabiltzeaz eta Erkidegoak lagundutako operazioak kudeatzeaz eta kontrolatzeaz; betiere, arau honek xedatutakoa betetz: Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduak, 2002ko ekainaren 25ekoak, Europako erkidegoen aurrekontu orokorrari aplikatzen zaion finantza-erregelamendua onartzekoak. Komeni da estatu kideek jasotako finantza-laguntza nola erabili duten azaltzea.

(10) Aldaketak Aztertzeko Europako Behatokiak (*European Monitoring Centre on Change*), Dublinen ezarriak, azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak egin ditzake Europako Batzordearentzat eta globalizazioaren eragin kaltegarria jasan duten estatu kideentzat, GEEFari funtsak eskatzeko aukerak ebaluatzeko.

(11) Estatu kideek ezin dute, beren kabuz, aipaturiko helburu horiek behar bezala lortu, eta ekintzaren neurri handiari eta haren ondorioei erreparatuta, halburuak askiago lortuko dira erkidego-mailako ekintzak abiatuta; horrenbestez, Tratatuaren 5. artikulua araututako subsidiarotasun-printzipioaz baliatuta, Erkidegoak neurriak har ditzake arlo horretan. Artikulu horrek berak araututako proportzionaltasun-printzipioa betetzeko, helburu horiek lortzeko neurriak xedatzera mugatzen da Erregelamendu hau.

(12) Kontuan hartuta GEEFaren aplikazio-data finantza-markoaren iraupenarekin lotua dagoela (2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte), lagundu egin behar litzazieke 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera merkatuetan gerta litezkeen egiturazko aldaketen ondorioz kaleratuak izango diren langileei.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

### *1. artikulua*

#### **Helburua eta aplikazio-eremua**

1. Europar Batasunean ekonomiaren hazkundera eta enpleguaren sorrera sustatzearren, Erregelamendu honek Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa sortzen du (GEEF). Izan ere, globalizazioaren ondorioz, munduko merkataritzaren ereduak egiturazko aldaketa handiak izan dituzte, eta GEEFaren helburua da bide bat irekitzea Erkidegoak laguntza eman diezaien aldaketa horien ondorioz kaleratuak izan diren langileei; betiere, kaleratze horiek oso ondorio kaltegarriak izan badituzte eskualdeko nahiz tokian tokiko ekonomian.

Aplikazio-epea 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31rako finantza-markoaren iraupenarekin lotua dago.

2. GEEFaren funtzionamenduari buruzko arauak zehazten ditu Erregelamendu honek, laneratzeko laguntza emateko merkatuen egiturazko aldaketen ondoriozko irazpen kolektiboetan kaleratuak izan diren langileei.

---

<sup>1</sup> C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

<sup>2</sup> L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### *2. artikulua*

#### **Interbentzio-irizpideak**

GEEFak finantza-laguntza emango du, baldin eta munduko merkataritzaren ereduak egitura-aldaketa handiak izaten badituzte, eta aldaketa horiek asaldura ekonomiko larriak sortzen badituzte. Berariaz, asko igo behar dute Europar Batasuneko inportazioek, Europar Batasunaren merkatu-kuotak beherakada bizkorra pairatu behar du sektore zehatz batean, edo deslokalizazioak gertatu behar dira hirugarren herrialdeetara. Halaber, hauetakoren bat gertatu behar du:

- a) Estatu kide bateko enpresa batek, gutxienez, mila langile kaleratu izana lau hileko epean; kaleratuen artean zenba daitezke hornitzaileek nahiz enpresako produktuen eraldatzaileek kaleratutako soldatapeko langileak.
- b) Mila langile kaleratu izana, bederatzi hileko epean, bereziki enpresa txiki eta ertainetakoak badira, NACEko 2. mailako sektore batean, edota, NUTS II. mailako eskualde batean edo bi eskualde mugakidetan.
- c) Lan-merkatu txikitetan, edo globalizazioak kaltetutako estatu kideek behar bezala justifika ditzaketan aparteko egoeretan, GEEFaren kargura eginiko kontribuzio-eskaerak onar daitezke, nahiz eta estatu kideek ez bete, guztiz, 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan aipatzen diren baldintzak; hori gertatuko da baldin eta kaleratzeek ondorio latzak eragin badituzte lekuko enpleguan eta ekonomian. Aparteko egoeren ondorioz erantsitako kontribuzioen zenbatekoa, gehienez ere, GEEFaren %15 izango da urte bakoitzean.

### *3. artikulua*

#### **Finantza-laguntza jaso dezaketan ekintzak**

Erregelamendu honen babespean, finantza-laguntza jaso dezakete lan-merkatuko neurri aktiboek, baldin eta neurri horiek zerbitzu pertsonalizatu eta koordinatuen baitan hartzen badira, lanpostua galdu duten langileei laneratzeko laguntza; bereziki neurri hauek lagunduko dira:

- a) Enplegu-bilaketan laguntzea; lanbide-orientazioa ematea; neurrirako lan-prestakuntza eta lanbide-birziklapena bultzatzea, eta, azken jarduera horien baitan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren (IKT) eremuko gaitasunak lantzea, lortutako esperientzia egiaztatzea, beste lanpostu batean kolokatzeko laguntza ematea, eta enpresa-arloko izaera ekintzailea sustatzea, edo norberaren kontura lanean hasteko laguntza ematea.
- b) Iraupen mugatuko aparteko neurriak; esate baterako, lan-bilaketa diruz laguntzea, mugikortasuna diruz laguntzea, edo etengabeko ikaskuntzan eta prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten pertsonen diruz laguntzea.
- c) Minusbaliotasunen bat duten langileek edo adin handikoek lan-merkatuan jarraitzeko edo haiek berriro laneratzeko neurriak.

GEEFak ez ditu finantzatu gizarte-babeseko neurri pasiboak.

Globalizazioak kaltetutako estatu kideen ekimenez, Globalizaziora egokitzeko Europako Funtsak finantza ditzake Funtsaren aplikazioa prestatzeko, kudeatzeko, informatzeko, argitaratzeko eta kontrolatzeko jarduerak.

### *4. artikulua*

2006/1927 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 406/1, 2006/12/30ekoa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### **Finantza-laguntzaren forma**

Batzordeak ordainketa baten bidez emango du finantza-laguntza; ordainketa hori estatu kideen eta Batzordearen arteko kudeaketa partekatu batez gauzatuko da, 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduaren 53. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatiaren, eta 5. eta 6. paragrafoen arabera.

#### *5. artikulua*

##### **Eskaerak**

1. Estatu kideek GEEFaren laguntza eska diezaioke Batzordeari. Eskaera hori egiteko, hamar asteko epea izango dute, GEEFaren interbentzioetarako 2. artikulua arautzen dituen baldintzak betetzen diren egunetik kontatzen hasita. Estatu kideek gerora osa ditzakete eskaerak.

2. Eskaeran, datu hauek adieraziko dira:

a) Analisi arrazoitu bat, adierazteko zer-nolako lotura dagoen aurrekositako kaleratzeen eta munduko merkataritzaren egiturazko eredu-aldaketen artean. Horrez gain, zehaztu eta kreditatu egin behar dute kaleratutako pertsonen kopurua, eta azaldu egin behar dute kaleratzeen ustekabeko izaera.

b) Honako hauen identifikazioa: enpresak, produktuen hornitzaileak edo eraldatzaileak, langileak kaleratu dituzten sektoreak (nazionalak nahiz multinazionalak), eta kaltetuak izan diren langileen kategoria.

c) Kaltetutako lurraldeen eta bertako erakundeen eta gainerako interesdunen deskribapena, eta kaleratzeek tokiko, eskualdeko nahiz nazioko enpleguan izango duten eraginaren aurreikuspenak.

d) Finantzatuko diren zerbitzu pertsonalizatu eta koordinatuen multzoa, haien kostuaren zenbatespen xehekatua, eta zerbitzu horiek egitura-funtsek finantzaturiko jardueretik izango duten osagarritasuna; horrez gain, estatuko legeriak eta hitzarmen kolektiboek xedatutako derrigorrezko ekintzak adieraziko dira.

e) Globalizazioaren kalteak jasandako langileei zerbitzu pertsonalizatuak noiz ematen hastea aurreikusi den.

f) Gizarte-interlokutoreei kontsulta egiteko erabili diren prozesuak.

g) Finantzaren kudeaketaz eta kontrolaz arduratzen diren agintariak, 18. artikulua xedatutakoari jarraiki.

3. Bigarren paragrafoak eskatutako informazioa ematean, labur azalduko dira agintari nazionalak eta kaltetutako enpresek abiatu dituzten ekintzak eta ekintza horien diruzko zenbatespena. Azken datu horiek emateko, berariaz erreparatu zaie estatu kideek, eskualdeek, gizarte-interlokutoreek eta globalizazioak kaltetutako enpresek, beren nazioko legeriaren nahiz hitzarmen kolektiboen baitan, abian jarri dituzten ekintzei eta Europako Gizarte Funtzak (aurrerantzean, EGIF) finantzatutako jardueri.

4. Interbentzio-irizpideak betetzen diren ala ez ebaluatzeko behar diren datu estatistikoak eta bestelako datuak emango dizkiote estatu kideek Batzordeari, eta datu horiek geografia-eskala egokikoak izango dira.

5. 2. paragrafoan adierazten den informazioa eta globalizazioak kaltetutako estatu kideek aurkez dezaketen informazio gehigarria kontuan hartuta, Batzordeak ebaluatu egingo du, kasuan kasuko estatu kideekin kontsultatuta, Erregelamendu honen arabera finantza-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen diren ala ez.

#### *6. artikulua*

2006/1927 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 406/1, 2006/12/30ekoa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### **Osagarritasuna, adostasuna eta koordinazioa**

1. GEEFaren laguntzak ez ditu ordeztuko enpresek, nazioko legeriaren nahiz hitzarmen kolektiboen baitan, egin beharreko ekintzak.
2. GEEFaren laguntzak osatu egingo ditu estatu kideek nazio-mailan, eskualdeetan nahiz toki-eremuetan abian jarritako ekintzak; besteak beste, egitura-funtsen bidez kofinantzatutakoak.
3. GEEFaren laguntzak elkartasuna eta laguntza eskaini behar diete munduko merkataritzaren ereduetan izandako egitura-aldaketen ondorioz kaleratuak izan diren langileei. GEEFak ezingo du finantzatu enpresen eta sektoreen berregituratzea.
4. Batzordeak eta estatu kideek, beren eskumenen baitan, Erkidegoko funtsek emandako laguntza behar bezala koordinatzen dela bermatuko dute.
5. Estatu kideek arretaz zainduko dute GEEFaren finantza-laguntza jaso duten jarduerak ez dutela Erkidegoko beste finantza-tresna batzuen laguntzarik jasotzen.

### *7. artikulua*

#### **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta diskriminaziorik eza**

Batzordeak eta estatu kideek bermatu egingo dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuko dela eta genero-ikuspegiari erreparatuko zaiola GEEFaren exekuzio-fase guztietan. Batzordeak eta estatu kideek neurriak hartuko dituzte GEEFaren exekuzio-faseetan, eta, batik bat, fondorako sarbide-fasean, diskriminaziorik gerta ez dadin, pertsonen sexuak, jatorrizko arrazak, erlijioak edo sinesmenak, minusbaliotasunak, adinak, orientazio sexualak edo bestelako arrazoiak bultzatuta.

### *8. artikulua*

#### **Batzordearen ekimenezko laguntza teknikoa**

1. Batzordearen ekimen gisa eta, gehienez ere, indarreko urterako aurreikusita dagoen baliabide ekonomikoen %35 erabilita, GEEF funtsa erabili ahal izango da Erregelamendu hau aplikatzeko beharrezkoak diren jarduerak egiteko; hots, jarraipena, informazioa, laguntza administratiboa eta teknikoa, auditoria, kontrola eta ebaluazioa.
2. Jarduera horiek 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio-motari aplikagarriak zaizkion garapen-arauen arabera egingo dira.

### *9. artikulua*

#### **Informazioa eta publizitatea**

1. Finantzaturiko jardueri buruzko informazioa emango dute estatu kideek, eta horiei buruzko publizitatea egingo. Informazio hori jakinarazi egingo zaie globalizazioak kaltetutako langileei, tokiko eta eskualdeko erakundeei, gizarte-interlokutoreei, komunikabideei eta, oro har, publikoari. Erkidegoaren lan-jarduna nabarmenduko du, eta argi adieraziko du laguntza GEEFetik datorrela.
2. Batzordeak web-orri bat sortuko du Interneten, Erkidegoko hizkuntza guztietan erabiltzeko aukera emango duena, eta, berariaz, GEEFari buruzko informazioa emango duena. Eskaerak aurkezteko orientazioak emango ditu web-orriak, eta

2006/1927 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 406/1, 2006/12/30ekoa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

onarturiko eta bazterturiko eskaerei buruzko informazio eguneratua azalduko du. Halaber, Aurrekontu Agintaritzaren eginkizuna nabarmenduko da.

### *10. artikulua*

#### **Finantza-laguntzaren zenbatekoa finkatzea**

1. Batzordeak, 5. artikuluko 5. paragrafoak xedatutako ebaluazioa egingo du, eta, lagundu beharreko langile-kopuruari, proposaturiko ekintzei eta zenbatetsitako gastuei erreparatuta, balizko finantza-laguntzen zenbatekoa ebaluatuko eta proposatuko du, al bait lasterren, eta eskuragarri dituen baliabideen mugak aintzat hartuta.

Zenbatekoak ezingo du izan 5. artikuluen 2. paragrafoko d) idatz-zatiak adierazitako zenbatetsitako kostuen %50 baino handiagoa.

2. 5. artikuluko 5. paragrafoak xedatutako ebaluazioa egin ondoren, Batzordeak uste badu bete egiten direla finantza-laguntza jasotzeko Erregelamendu honek agintzen dituen baldintza guztiak, 12. artikuluko araututako prozesua abian jarriko du berehala.

3. 5. artikuluko 5. paragrafoak xedatutako ebaluazioa egin ondoren, Batzordeak uste badu ez direla betetzen finantza-laguntza jasotzeko Erregelamendu honek arautzen dituen baldintzak, berehala emango dio horren berri dagokion estatu kideari.

### *11. artikulua*

#### **Gastu baimenduak**

Gastuak GEEFaren kontura ordaindu ahal izango dira estatu kideak globalizazioak kaltetutako langileei zerbitzu pertsonalizatuak ematen hasten diren momentutik aurrera, 5. artikuluen 2. paragrafoko e) idatz-zatiaren arabera.

### *12. artikulua*

#### **Aurrekontu-prozedura**

1. Erakunde arteko hitzarmenaren 28. artikuluan adierazitakoa bete behar dute GEEFaren mekanismoek, eta baita artikuluko horri gerora egiten zaizkion berrikuspenek xedatutakoa ere.

2. GEEFaren kredituak Europar Batasuneko aurrekontu orokorrean esleituko dira, aurrekontu-prozedura arrunta betez, eta Batzordeak nahikoa marjina eta/edo baliogabetutako konpromiso-kreditu identifikatu bezain laster.

3. Batzordeak uste badu GEEFaren kargurako finantza-laguntza bat esleitu behar dela, proposamen bat aurkeztuko dio Aurrekontu Agintaritzari, azken horrek kredituak baimendu ditzan, haien zenbatekoa 10. artikuluko araututako moduan zehaztu ondoren; horrez gain, zenbateko hori GEEFeko dagokion aurrekontu-sailera transferitzeko eskatuko dio. Proposamenak multzokatuta aurkez daitezke.

GEEFari dagozkion transferentziak 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduaren 24. artikuluko 4. paragrafoaren arabera egingo dira.

4. Proposamen horretan, honako hauek sartuko dira:

2006/1927 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 406/1, 2006/12/30ekoa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- a) 5. artikuluko 5. paragrafoaren arabera egindako ebaluazioa, eta ebaluazioa egiteko erabili den informazioari buruzko laburpen bat.
- b) 2. eta 6. artikuluetan aurreikusten diren irizpideak behar bezala betetzen direla egiaztatzen duten elementuak.
- c) Proposatutako zenbatekoak justifikatzen dituzten arrazoiak.

5. Proposamena aurkeztean, Batzordeak hiru alderdiko elkarrizketen prozedura bati ekingo dio, eta hura, beharrezkoa bada, modu sinplifikatuan egingo da. Elkarrizketa horien helburua izango da, Aurrekontu Agintaritzaren bi adarrekin adostea GEEFera jotzeko premiarik dagoen ala ez, eta, premiarik izatekotan, zer zenbateko eman behar duen funtsak.

6. GEEFaren urteko gehieneko zenbatekoaren laurden batek gutxienez erabilgarri izan behar du urte bakoitzeko irailaren leian, urtea amaitu bitartean sor daitezkeen premiei aurre egiteko.

7. Aurrekontuko Agintaritzak kredituak libratu ondoren, Batzordeak erabaki bat hartuko du finantza-laguntzak emateari dagokionez.

### *13. artikulua*

#### **Finantza-laguntzaren ordainketa eta erabilera**

1. Finantza-laguntza emateko erabakia 12. artikuluko 3. paragrafoak xedatutako moduan hartu ondoren, Batzordeak ordainketa batean abonatu die finantza-laguntza globalizazioaren kalteak jasan dituzten estatu kideei, eta, hasiera batean, 15 eguneko epea izango du ordainketa hori egiteko.

2. Estatu kideek, 5. artikuluko xedatutako epeak beteta, aplikazio-dataren ondorengo 12 hiletan erabiliko dute, bai finantza-laguntza, bai zenbateko horrek sortutako interes oro.

### *14. artikulua*

#### **Euroaren erabilera**

Aurkezten diren dokumentu guztietako zenbatekoak eurotan adieraziko dira (eskaeretaoak, finantza-laguntza bat emateko erabakietakoak eta Erregelamendu honetan aipatzen diren txostenetakoak, besteak beste).

### *15. artikulua*

#### **Azken txostena eta likidazioa**

1. Arau honetako 13. artikuluko 2. paragrafoan zehazten den epea amaitu eta sei hilabetera arteko epea izango dute finantza-laguntza jaso duten estatu kideek Batzordeari txosten bat aurkeztu, eta, bertan, finantza-laguntza nola aplikatu duten azaltzeko. Alderdi hauek zehaztuko ditu txostenak: egindako ekintzen izaera, lortutako emaitzak, gastuen justifikazioa, eta, halakorik gertatu bada, ekintzek EGIFen finantzazio osagarria jaso dutela.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan adierazten den informazioa jaso eta, gehienez ere, sei hilabetera, Batzordeak GEEFaren finantza-laguntzaren likidazioa egingo du.



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*16. artikulua*

**Urteko txostena**

1. 2008tik aurrera, Batzordeak txosten kuantitatibo eta kualitatibo bat bidaliko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, biei ere urte bakoitzeko uztailearen 1a baino lehen. Txosten horretan azalduko dira aurreko urtean Erregelamendu honen babespean eginiko ekintza guztiak. GEEFaren laguntzen bitartez lorturiko emaitzak azaltzea izango da txostenaren egiteko nagusia; hala, berariaz, aurkeztutako eskaerei buruzko informazioa emango du, onartutako kontzesio-erabakiak adieraziko eta finantzaturiko ekintzak azalduko (azken atal horretan, ekintzak egitura-funtsen kargura, eta, bereziki, EGIFaren kargura finantzaturiko ekintzekiko osagarriak diren ala ez argituko du). Halaber, onartutako finantza-laguntzaren likidazioa azalduko du. Azkenik, adieraziko du zer eskaera ezetsi diren, kreditu nahikorik ez zegoelako edo eskaerak aukeragarriak ez zirelako.

2. Informazioa emateko xedez, txostena Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari, Eskualde Komiteari, eta gizarte-interlokutoreei aurkeztuko zaie.

*17. artikulua*

**Ebaluazioa**

1. Batzordeak jarduera hauek egingo ditu, bere kabuz eta estatu kideekin elkarlan estuan:

- a) tarteko ebaluazio bat, 2001eko abenduaren 31ra arte lortutako emaitzen eraginkortasunari eta bideragarritasunari buruzkoa.
- b) Ex-post ebaluazio bat, gehienez ere, 2014ko abenduaren 31rako; ebaluazioa kanpoko adituen laguntzarekin egingo da, GEEFaren inpaktua eta haren balio erantsia neurtzeko.

2. Informazioa emateko xedez, ebaluazioaren emaitzak bidali egingo zaizkie Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari, Eskualdeetako Komiteari, eta gizarte-interlokutoreei.

*18. artikulua*

**Kudeaketa eta finantza-kontrola**

1. Batzordeak Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorra betetzeko dituen ardurak alde batera utzi gabe, estatu kideak arduratuko dira, hasiera batean, bai Funtsak babestutako ekintzak kudeatzeaz, bai horien finantza-kontrola egiteaz. Horretarako, neurri hauek hartuko dituzte:

- a) Egiaztatu egingo dute abian jarri direla kudeaketa- eta kontrol-sistemak, eta horien erabilerak bermatu egiten duela Erkidegoko funtsak modu eraginkorrean eta zuzentasunez erabiltzen direla, finantzaketaren kudeaketa onaren printzipioari jarraiki.
- b) Egiaztatu egingo dute finantzaturiko jarduerak behar bezala bete direla.
- c) Egiaztatu egingo dute finantza-gastuak benetako arrazoietan oinarrituak daudela, zuzenak direla eta erregularrak direla.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

d) Irregularitasunak aurreikusiko, hautemango eta zuzenduko dituzte, 2006ko uztailaren 11ko 1083/2006 (EE, Euratom) Erregelamenduaren 70. artikulua adierazitakoaren ildotik (erregelamendu horrek, Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsaren, Europako Gizarte Funtsaren eta Kohesio Funtsaren <sup>(1)</sup> xedapen orokorrak zehazten ditu); horrez gain, behar bezala abonatu ez diren zenbatekoak berreskuratuko dituzte, aipatutako artikulua xedatutako berandutzako interesak aplikatuta. Alderdi horien berri emango zaio Batzordeari, eta eginbide adminitratiboak eta legalak jakinaraziko zaizkio.

2. Hautemandako irregularitasunak zuzentzeko behar adina finantza-zuzenketa egingo dituzte estatu kideek. Zuzenketa horiek Erkidegoaren laguntza osoa nahiz haren zati bat baliogabetuko dute. Hautemandako irregularitasunak eragindako galerak berreskuratuko dituzte estatu kideek, eta zenbateko horiek Batzordeari itzuliko dizkiote. Itzuli beharreko zenbateko horiei berandutza-interesak gehitu zaizkie, baldin eta diruaren itzulketa estatu kideek finkatutako mugaegunaren ondoren egingen bada.

3. Batzordeak, Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorra betetzeko eskumena duen aldetik, neurriak hartuko ditu finantzatutako ekintzak finantza-kudeaketa onaren printzipioaren arabera egingen direla egiaztatzeko, Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamendua xedatutakoari jarraiki. Estatu kideen ardura izango da kudeaketarako eta kontrolerako sistema egokiak edukitzea; bestalde, Batzordearen eginkizuna da sistema horiek existitzen direla egiaztatzea.

Xedapen horiek betetzeko, Batzordeko funtzionario nahiz agenteek estatu kideen lurraldean bertan kontrola ditzakete Funtsak finantzatutako ekintzak; bereziki, laginketen bidez (gutxienez, lanegun bateko aurrerapenez eman behar zaio estatu kideari kontrol-egintzari buruzko abisua). Kontrol-eskumen horrek ez ditu indargabetuko Kontu Auzitegiaren eskumenak eta estatu kideek beren lege, erregelamendu edo administrazio-xedapenetan oinarrituta egin ditzaketen kontrolak. Batzordeak kontrol horien berri emango die estatu kideei, premiazkoa izan daitekeen laguntza guztia eskuratzeko. Globalizazioak kaltetutako estatu kideetako funtzionarioek nahiz agenteek parte har dezakete kontrol horietan.

4. Estatu kideek ziurtatu egingo dute gastuekin zerikusia duten egiaztapen guztiak Batzordearen eta Kontu Auzitegiaren eskura daudela, hiru urteko epean, GEEFaren finantza-laguntzaren likidazioa egingen dutenetik kontatzen hasita.

### *19. artikulua*

#### **Finantza-laguntza itzultzea**

1. Ekintza baten benetako kostua 12. artikuluari jarraiki zenbatetsitakoa baino txikiagoa bada, finantza-laguntzatik dagokion zenbatekoa itzultzeko eskatuko die Batzordeak estatu kideei.

2. Estatu kideren batek ez baditu betetzen finantza-laguntzaren bat emateko erabakian xedaturiko betebeharrak, Batzordeak beharrezko izapide guztiak egingo ditu estatu kideek jasotako finantza-laguntza osoa edo zati bat buelta dezaten.

3. Artikulu honetako 1. edo 2. paragrafoen arabera erabaki bat onartu aurretik, Batzordeak behar bezala aztertuko du kasua, eta dagokion estatuari epe jakin bat emango dio honek bere oharrak aurkez ditzan.

4. Beharrezko egiaztapenak egin ondoren, Batzordeak ondorioztatzen badu estatu kideren batek ez dituela bete 18. artikuluko 1. paragrafoan xedatzen diren betebeharrak, finantza-zuzenketak egitea erabakiko du; betiere, bien artean ez bada akordiorik lortu, eta estatu kideak ez baditu beharrezko zuzenketak egin Batzordeak finkatutako epean. Aurrez azaldutako epea amaitu ondorengo hiru hilabeteetan egingo dira finantza-zuzenketak, eta, ondorioz, baliogabetu egingo dira Funtsak dagokion ekintzari egindako ekarpen osoa edo haren zati bat. Zuzenketak erabakitzeke, kontuan hartuko dira

---

<sup>1</sup> EO L 210, 2006.7.31koa, 25. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

estatu kideak egindako oharrak. Hautemandako irregulartasunen ondorioz galdutako zenbateko guztiak berreskuratuko ditu Batzordeak eta, estatu kideak finkatutako epea amaituta, zenbateko hori ez bada itzuli, berandutza-interesak aplikatuko dira.

*20. artikulua*

**Berrikuspen-klausula**

16. artikuluan aurreikusitako urteko lehen txostena kontuan hartuta, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, Batzordearen proposamenak aintzat hartuta, Erregelamendu hau berrikusteko eskubidea izango dute; horren helburua da bermatzea, batetik, GEEFren elkartasuneko xedeak betetzen direla eta, bestetik, haren xedapenek estatu kide guztien ekonomia-, gizarte-, eta lurralde-ezaugarriak kontuan hartzen dituztela.

Dena den, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak berrikusi egingo dute Erregelamendu hau, gehienez ere, 2013ko abenduaren 31 baino lehen.

*22. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Erabaki hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeitasei egunetara jarriko da indarrean.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu ahal izango da.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta estatu kide guztietan zuzenean ezartzekoak izango dira.

Bruselan emana, 2006ko abenduaren 20an.

*Europako Parlamentuaren izenean,*

*Kontseiluaren izenean,*

*Presidentea*

*Presidentea*

J. BORRELL FONTELLES

J. KORKEAOJA